

IKERKETA EGITURA BAKOITZEKO IKERKETA PRODUKTIBITATEAREN KOEFIZIENTEA KALKULATZEA (IPK)

Ikerketa-talde bakoitzeko Ikerketa Produktibitatearen Koefizientea (**IPK**) azken seiurtekorako kalkulatzeko, honako atal eta ehuneko hauek hartuko dira kontuan:

1. oinarria.- Ikerketa-jarduera (% 60)

1.1. Seiurtekoak (% 30)

a) Ikerketa-taldearen bitartez UPV/EHUrekin estatutuen edo lanaren bidezko lotura iraunkorra duen irakasle eta ikertzaile doktore bakoitzeko seiurtekoen puntuazioa ateratzeko, ondoko formula erabili behar da:

a.1. Seiurteko posibleen artean, CNEAIk, UNIBASOk edo Europan aintzatetsiriko agentziaren batek kreditaturiko seiurtekoak, honako formula honen arabera:

$$S_k = S_a / S_p$$

non:

S_k = k ikertzailearentzako seiurteko-indizea (gehienezko balioa 1 da).

S_a = k ikertzailearen **seiurteko akreditatuak**.

S_p = k ikertzailearen **seiurteko posibleak**.

Seiurteko posibleak kalkulatzeko, irakasle eta ikertzaile iraunkorrei doktore titulua eman zitzaizkizako data erabiliko da.

a.2. S_k koefizientea alderatuko da k ikertzailearen ezagutza-arloan Espainiako estatu osoan arrakastaz lortutako seiurtekoen portzentajearekin (ESc). Portzentaje hori CNEAIren txostenik berrienean argitaratutakoa izango da:

$S_k \geq ESc$ bada, koefizientea da $S_{kp} = 0,30$

$S_k < ESc$ bada, koefizientea da $S_{kp} = 0,30 \times (S_k\text{-ren balioa})$

S_{kp} izanik seiurtekoen indize haztatua.

b) Ikerketa-taldeko Seiurtekoen (**Sei**) puntuazioa ateratzeko, ondoko formula erabili behar da:

$$Sei = \sum S_{kp} / n_{ipd}$$

non n_{ipd} baita Ikerketa-taldearen bitartez UPV/EHUrekin estatutuen edo lanaren bidezko **lotura iraunkorra** duten irakasleen eta ikertzaile doktoreen kopurua, eta batukaria badagokio aipatutako kopuru horri ere.

1.2. Ikerketaren hedapena (% 30)

a) Ikerketa-taldearen hedapen-puntuazioa ateratzeko, ondoko formula erabili behar da:

$$D = [(0,7 \cdot pci1c + 0,3 \cdot pci2c) / nit]$$

non:

• D = Ikerketa-taldeak egindako ikerketaren hedapen-indizea azken 5 urteetan (2010-2014, biak barne).

- pci1c = Ikerketa-taldeko ikertzaileek argitaraturik, JCRaren 1. kuartilean (Q1) indexatu diren zientzia-argitalpen ezberdinen kopurua, azken 5 urteetan (2010-2014 biak barne).
- pci2c = Ikerketa-taldeko ikertzaileek argitaraturik, JCRaren 2. kuartilean (Q2) indexatu diren zientzia-argitalpen ezberdinen kopurua, azken 5 urteetan (2010-2014 biak barne).
- nit= Ikerketa-taldeak deialdi honetarako aurkezten dituen ikertzaileen kopurua, figura hauen barruan:
 - ✓ arduraldi osoko langile doktore iraunkorrak seiurteko aktiboarekin eta Ikerketa-taldeari atxikiak, eta Ikerbasque eta Ramon y Cajal programetako langile atxikiak (**IDIR**).
 - ✓ azken 5 urteetan (2010-2014 biak barne) Ikerketa-taldeari atxikita egonik, honako tipologia hauetako batean sartzen diren langileak:
 - langile doktore ez-iraunkorrak, azken 5 urteetan (2010-2014 biak barne), gutxienez, JCRan indexatutako 5 zientzia-agerkari argitaratu dituztenak (**IDEI**).
 - langile ez-doktoreak, doktoretza-tesia erregistratu dutelarik, tesia Ikerketa-taldeko kide batek zuzentzen dienak (**IED**).

IDEIen eta **IED**en kopurua zehazteko, bakoitzari dagokion EJCa kontuan hartuko da, hau da, **IDEI** edo **IED** bakoitzaren kontratua ezartzen den arduraldiaren portzentajea erabiliko da. Horrela kalkulaturako EJCa hainbanatu egingo da, **IDEI** edo **IED** bakoitza azken 5 urteetan (2010-2014 biak barne) Ikerketa-taldeari atxikita egon den aldiaren arabera.

pci2c = 0 duten Ikerketa-taldeentzako honako formula hau erabiliko da:

$$D = pci1c / nit$$

- b) Deialdiaren zientzia-arloko/arloetako Ikerketa-taldeetan **D** koefiziente handiena duenak 0,30eko puntuazioa lortuko du, eta gainerakoak Ikerketa-talde horren arabera haztatuko dira, zientzia-arlo bakoitzerako.

Haztapena egin ondoren, Ikerketa-taldearen hedapen-indizeari **Dei** deituko zaio.

2. oinarria.- Lortutako ikerketa-proiektuak eta -kontratuak (% 25)

2.1. Ikerketa-kontratuen baliabide-kopurua (% 10)

- a) Formularen erabiliko den ikerketa-kontratuaren definizioa:

(LOU) Unibertsitateen Lege Organikoaren 83. artikulua, UPV/EHUren Estatutuen eta haren Kontratu Araudiaren arabera, UPV/EHUk, eta bertan jarduten duten irakasleek eta ikertzaileek lan zientifikoak, teknologikoak, humanistikoak eta artistikoak egin ditzakete eta espezializazioko irakaskuntzak edo berariazko prestakuntza-jarduerak gara ditzakete, honako kontratu-modalitate hauen arabera:

1. **I+G edota Berrikuntza Teknologikoko lanak garatzea, hala nola ikerketen emaitzak transferitzekoak.**
2. Zerbitzu tekniko errepikakorrak egitea, zeinetan zerbitzu mota bakoitzerako unitate-prezio bat ezar daitekeen.
3. Aholkularitza zientifikoa, teknologikoa edo artistikoa ematea, arlo edo beharrizan jakin batean.
4. Espezializazioko ikastaroak edo berariazko prestakuntza-jarduerak garatzea eta ekintzotan parte hartzea, kontuan hartuta, jarduera horien helburua ez dela Unibertsitateko Titulua lortzea.

Ikerketa-kontratuetan lortutako baliabide-kopuruaren arabera produkzio zientifikoa kalkulatzeko, **1. motako kontratuetan/hitzarmenetan** lortutakoak bakarrik hartuko dira kontuan, betiere, lotuta baldin badaude deialdiaren zientzia-arloekin, Talde bateratuarekin eta UPV/EHUrekin (IETBren edo EUSKOIKER fundazioaren bitartez); baita ere teknologiako lizentzia-kontratu bidez lortutakoak. Aipatutako baliabide horiek zenbatzeko, kontratuetakoa ikertzaile nagusia Ikerketa-taldeko kidea izan beharko da.

- b) Ikerketa-talde bakoitzak ikerketa-kontratu bidez lortutako baliabide-kopuruagatik puntuazioa ateratzeko, ondoko formula erabiliko da:

$$R = rei/nit$$

non:

R = Azken 5 urteetan (2010-2014, biak barne) ikerketa-kontratu bidez lortutako baliabide-kopuruaren indizea:

- ✓ Ikerketa-taldeak lortutako baliabideena,
- ✓ UPV/EHUtik kanpo lortutakoena,
- ✓ UPV/EHUko IETBk edo EUSKOIKER fundazioak kudeatutakoak.

Kanpo uzten da eduki aldetik ikerketa-lanekin loturarik ez duen hitzarmen bidez lortutako finantziak.

rei = azken 5 urteetan (2010-2014, biak barne) ikerketa-kontratu bidez lortutako baliabide-kopurua:

- ✓ Ikerketa-taldeak lortutakoak,
- ✓ UPV/EHUko IETBk edo EUSKOIKER fundazioak kudeatutakoak.

nit = ikerketa-egiturak deialdi honetarako aurkezten dituen ikertzaileen kopurua, figura hauen barruan:

- ✓ arduraldi osoko langile doktore iraunkorrak seiurteko aktiboarekin eta Ikerketa-taldeari atxikiak, eta Ikerbasque eta Ramon y Cajal programetako langile atxikiak (**IDIR**).
- ✓ azken 5 urteetan (2010-2014 biak barne) Ikerketa-taldeari atxikita egonik, honako tipologia hauetako batean sartzen diren langileak:



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAIN TASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

– langile doktore ez-iraunkorrek, azken 5 urteetan (2010-2014 biak barne), gutxienez, JCRan indexatutako 5 zientzia-agerkari argitaratu dituztenak (**IDEI**).

– langile ez-doktoreak, doktoretza-tesia erregistratu dutelarik, tesia Ikerketa-taldeko kide batek zuzentzen dienak (**IED**).

IDEIen eta **IED**en kopurua zehazteko, bakoitzari dagokion EJCa kontuan hartuko da, hau da, **IDEI** edo **IED** bakoitzaren kontratua ezartzen den arduraldiaren portzentajea erabiliko da. Horrela kalkulaturako EJCa hainbanatu egingo da, **IDEI** edo **IED** bakoitza azken 5 urteetan (2010-2014 biak barne) Ikerketa-taldeari atxikita egon den aldiaren arabera.

c) Deialdiaren zientzia-arloko/arloetako Ikerketa-taldeetan **R** koefiziente handiena duenak 0,10eko puntuazioa lortuko du, eta gainerakoak Ikerketa-talde horren arabera haztatuko dira, zientzia-arlo bakoitzerako.

Haztapena egin ondoren, ikerketa-kontratuen bidez lortutako baliabide-kopuruaren adierazpenari **Rei** deituko zaio.

2.2. Ikerketa-proiektuak (% 15)

a) Ikerketa-talde bakoitzak lortutako proiektuei dagokien puntuazioa ateratzeko, honako formula hau erabiliko da:

$$P = 0,6 \cdot (\text{pin}/\text{nit})p + 0,4 \cdot (\text{pigv}/\text{nit})p$$

non:

P = Ikerketa-taldeak azken 5 urteetan (2010-2014, biak barne) egindako ikerketa-proiektuen indizea.

✓ UPV/EHUtik kanpokoak,

✓ deialdi publikoetakoak

✓ UPV/EHUK kudeatutakoak.

pin = Ikerketa-taldeak estatuko deialdi publiko lehiakorretan azken 5 urteetan (2010-2014, biak barne) lortutako ikerketa-proiektuen kopurua (Ikus, III. eranskinean, estatuko deialdi publiko lehiakorren zerrenda).

nit = Ikerketa-taldeak deialdi honetarako aurkezten dituen ikertzaileen kopurua, figura hauen barruan:

✓ arduraldi osoko langile doktore iraunkorrek seiurteko aktiboarekin eta Ikerketa-taldeari atxikiak, eta Ikerbasque eta Ramon y Cajal programetako langile atxikiak (**IDIR**).

✓ azken 5 urteetan (2010-2014 biak barne) Ikerketa-taldeari atxikita egonik, honako tipologia hauetako batean sartzen diren langileak:

– langile doktore ez-iraunkorrek, azken 5 urteetan (2010-2014 biak barne), gutxienez, JCRan indexatutako 5 zientzia-agerkari argitaratu dituztenak (**IDEI**).

–langile ez-doktoreak, doktoretza-tesia erregistratu dutelarik, tesia Ikerketa-taldeko kide batek zuzentzen dienak (**IED**).

IDEIen eta **IED**en kopurua zehazteko, bakoitzari dagokion EJCa kontuan hartuko da, hau da, **IDEI** edo **IED** bakoitzaren kontratuan ezartzen den arduraldiaren portzentajea erabiliko da. Horrela kalkulaturako EJCa hainbanatu egingo da, IDEI edo IED bakoitza azken 5 urteetan (2010-2014 biak barne) Ikerketa-taldeari atxikita egon den aldiaren arabera.

pigv = Ikerketa-taldeak Eusko Jaurlaritzaren deialdi publiko lehiakorretan azken 5 urteetan (2010-2014, biak barne) lortutako ikerketa-proiektuen kopurua (Ikus, III. eranskinean, Eusko Jaurlaritzaren deialdi publiko lehiakorren zerrenda).

- b) Deialdiaren zientzia-arlo bakoitzeko Ikerketa-taldeen artean, estatuko deialdi publiko lehiakorretan proiektu gehien lortu duenak gehienezko (p_{in}/nit) $p = 1$ koefizientea izango du, eta gainerakoak Ikerketa-talde horren arabera haztatuko dira, zientzia-arlo bakoitzerako.
 - c) Halaber, deialdiaren zientzia-arlo bakoitzeko Ikerketa-taldeen artean, Eusko Jaurlaritzaren deialdi publiko lehiakorretan proiektu gehien lortu duenak gehienezko (p_{igv}/nit) $p = 1$ koefizientea izango du, eta gainerakoak Ikerketa-talde horren arabera haztatuko dira, zientzia-arlo bakoitzerako.
 - d) Deialdiaren zientzia-arlo bakoitzeko Ikerketa-taldeetan **P** koefiziente handiena duenak 0,15eko gehienezko puntuazioa izango du, eta gainerakoak Ikerketa-talde horren arabera haztatuko dira, zientzia-arlo bakoitzerako.
- Haztapena egin ondoren, Ikerketa-talde bakoitzeko ikerketa-proiektuen indizearen adierazpenari **Pp** deituko zaio.
- e) Ikerketa-taldeak Europar Batasunaren ikerketa-proiektuetan (**piue**) parte hartzen badu, balio bat erantsiko zaio, **piue** = 0,05 puntukoa gehienez, Europar Batasuneko lehiakortasun zientifiko eta teknologikoari eta haren aitzindaritzari dagokiena.
 - f) Ikerketa-talde bakoitzaren proiektuei dagokien puntuazioa ateratzeko, honako formula hau erabiliko da:

$$P_{ei} = P_p + p_{iue}$$

3. oinarria.- Ikertzaileen prestakuntza (% 15)

3.1. Doktore Tesiak (% 15)

- a) Ikerketa-talde bakoitzaren doktore-tesiei dagokien puntuazioa ateratzeko, ondoko formula erabili behar da:

$$TD = (0,6 \cdot t_{di} + 0,4 \cdot t_{dn}) / n_{ipd}$$

non:

TD = Azken 5 urteetan (2010-2014, biak barne) UPV/EHUn defendaturako eta Ikerketa-taldeko ikertzaileek zuzendutako doktore-tesien indizea.

tdi = doktore-tesien kopurua:

- ✓ **nazioartekoak**
- ✓ azken 5 urteetan (2010-2014, biak barne) UPV/EHUn defendatutakoak eta
- ✓ Ikerketa-taldeko ikertzaileek zuzendutakoak.

tdn = doktore-tesien kopurua:

- ✓ **nazionalak**
- ✓ azken 5 urteetan (2010-2014, biak barne) UPV/EHUn defendatutakoak eta
- ✓ Ikerketa-taldeko ikertzaileek zuzendutakoak.

nipd = Ikerketa-taldearen bitartez UPV/EHUrekin estatutuen edo lanaren bidezko lotura iraunkorra duten irakasleen eta ikertzaile doktoreen kopurua.

b) Deialdiaren zientzia-arlo bakoitzeko Ikerketa-taldeetan TD koefiziente handiena duenak gehienezko 0,15eko puntuazioa izango du, eta gainerakoak Ikerketa-talde horren arabera haztatuko dira, zientzia-arlo bakoitzerako.

Haztapena egin ondoren, Ikerketa-taldearen hedapen-indizearen adierazpenari **TDei** deituko zaio.

4. oinarria.- Ikerketa Talde bakoitzeko Zientzia Produkzioaren Koefizientea (IPK) kalkulatzea

Ikerketa-talde bakoitzeko zientzia-produkzioaren koefizientea azken seiurtekorako kalkulatzeko, honako formula hau hartuko da kontuan:

$$\text{IPK} = (\text{Sei} + \text{Dei} + \text{Rei} + \text{Pei} + \text{TDei})$$